

## Eskualdeko Udalek eta Gurutze Gorriak abiarazitako kanpainari esker, 300 umek jostailuak jaso dituzte gabonetan

6.000 jostailu bildu dira, ingurumenaren eta gizartearen aldeko herritarren kontzientzia maila altua berretsiz.

Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan, DEBEGESA Agentziaren lankidetzarekin, Elkarlanean proiektua burutu da eskualdean. Hain zuzen, kontsumo iraunkor etikoa eta arduratsua izan du helburu kanpainak, umeen artean banatzeko jostailu bilketa abiaraziz.



Herritarrek jostailu ugari eman dituzte

Kanpaina gabonetan jarri dute martxan Debarreneko zortzi Udalek, DEBEGESA eta Gurutze Gorriak. Bilketa eskualdeko hainbat ikastetxeren bitartez egin da eta Debako, Elgoibarko eta Eibar-Ermuako Gurutze Gorria arduratu dira jostailuen banaketaz.

Debabarreneko herritarrek ingurumenaren eta gizartearen aldeko kontzientzia maila altua erakutsi dute beste behin. Guztira 6.000 jostailu inguru bildu dira. Horietatik %80 egoera onean zeuden. 12 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten eta baliabide mugatuak dituzten familiei banatu zaizkie jostailuak.

Gurutze Gorriak eskualdeko 200 familiatan banatu ditu jostailuak, ia 350 umerengana iritea lortuz. Gainerako jostailuak bestelako gizarte talde eta erakundeei eman zaizkie: Elgoibarko Santa Klara komentuari, Marokon aurrera darabatzan proiektuak laguntzeko; Markinako Mundu Zabal GKeri, Senegalera bidaltzeko; eta, Espiral Loranca elkarteari, gabeziak dituzten haur eta gazteekin lanean diharduena, alegia.

### Proiektuan parte hartu duten ikastetxeak:

- Mutriku: San Miguel ikastetxea eta Institutua.
- Deba: Mendata eta Luzaro ikastetxeak.
- Mendaro: Mendaroko ikastola.
- Elgoibar: Institutua, Meka, Ikastola, Herri eskola eta IMH.
- Soraluze: Soraluze B.H.I.
- Eibar: San Juan Mogel ikastola. Urkizu, San Andres, Amaña, La Salle Isasi, Mogel Isasi, Itzio, Arrateko Andra Mari, Uni Eibar Ermua.
- Ermua: San Lorenzo, Ongarai, Eskolabarrri, San Pelayo, Anaitasuna ikastola L.H.I., Ongarai B.H.I., Anaitasuna BHI.
- Mallabia: Learreta Markina Ikastetxea.

## El Geoparque de la Costa Vasca recoge el certificado de ingreso en la Red Europea

La candidatura del Geoparque de la Costa Vasca, ha merecido el reconocimiento de la UNESCO y del Comité de Coordinación de la Red de Geoparques Europeos. Gracias a ello,

el territorio que conforman las localidades de Deba, Mutriku y Zumaia se incorpora a la Red Europea y a la Red Global de Geoparques.

datura y destacó "el importante patrimonio geológico, cultural y natural que posee el Geoparque de la Costa Vasca".



Guy Martini junto con los alcaldes de Deba, Mutriku y Zumaia, en el acto de entrega.

En un acto celebrado en Deba, los tres ayuntamientos impulsores del proyecto acompañados de todos los demás miembros de la Asociación Geogarapen, Asociación para la gestión del Geoparque de la Costa Vasca, recibieron el pasado mes de diciembre el certificado acreditativo del ingreso a la Red Europea y Global de Geoparques de la mano del geólogo francés Guy Martini.

### PRESENTACIÓN A CARGO DE LA UPV

Tras la entrega del certificado, el catedrático Xabier Orue-Etxebarria y Juan Ignacio Baceta, profesores de la UPV, ofrecieron una breve presentación bajo el título "Pasado, presente y futuro de las investigaciones geológicas en la Costa Vasca", enmarcado dentro del estratégico Convenio de colaboración entre Geogarapen y la UPV.

En su discurso, Martini alabó la labor de Geogarapen en la elaboración de la candi-

# Berrikuntza ugari Debabarreneko BTT Zentroan



2011. urtea berrikuntzaz beterik dator Debabarreneko BTT Zentroarentzat: ibilbide berriak Kalamua eta Kilimon inguruan, fitxa tekniko berriak eta bisita gidatuak egiteko aukera, besteak beste.

Zentruak seinalizatutako 15 ibilbide ditu, guztira 350 km baino gehiago. Ibilbide zailak (beltzak eta gorriak) eskualdeko gailur ikusgarrietatik igarotzen dira baina bada ibilbide errazak egiteko aukerarik ere, Mintxeta inguruan (Elgoibar) edota Aixolan (Ermua). Orain gutxi zabaldu berri dira beste bi ibilbide erraz, Kalamuan (Eibar) eta Kilimoneko bailaran (Mendaro), edonork egiteko modukoak.

*Bakarrik egin beharrean, gida baten laguntza nahiago dutenek, eskualdeko enpresa batek eskaintzen du zerbitzu hau*

Fitxa tekniko berriak ere eskuragarri izango dira laster. [www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com) webgunean, harrera gunean edota Mutriku eta Debako Turismo Bulegoetan eskuratu ahal izango dira.

Debabarrena BTT Zentruko Harrera Gunea Mintxetako Kirol Gunean dago, Elgoibarren. Bertan, bizikleten eta GPS-en alokairua, bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea, dutxak, igerilekua, merenderoa, etab. daude.

Gehiago jakin nahi duten herritarrek informazio osoa eskuratu ahal izango dute ondoko webguneetan: [www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com) eta [www.btteuskadi.net](http://www.btteuskadi.net).

## Los Ayuntamientos de Debabarrena definen una propuesta para la creación de una red comarcal de bidegorris

A través de la Agencia DEBEGESA, los ocho Ayuntamientos de Debabarrena (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku y Soraluze) han realizado una propuesta de red de bidegorris en la comarca, con la finalidad de impulsar la bicicleta como medio de transporte y liberar espacio público del tráfico para así recuperar un entorno de calidad.

Cabe señalar que, el Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa está actualmente elaborando el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa (PTS), todavía en fase de tramitación. El PTS recoge una propuesta de red foral 'básica', ya que únicamente propone el eje de conexión entre los diferentes municipios. Diputación Foral de Bizkaia también ha desarrollado el Plan Ciclable de su territorio. El Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, por su parte, está redactando el PTS de Vías Ciclistas de la CAPV.

*Algunos municipios de la comarca contaban ya con una propuesta al respecto, como es el caso de los municipios de Ermua y Deba.*

La propuesta comarcal viene, por tanto, a completar los anteriores planes, proponiendo una trazado de bidegorris a su paso por los núcleos urbanos de los municipios de la comarca, así como ofreciendo aportaciones a las conexiones propuestas entre municipios.

### RED DE BIDEGORRIS DE DEBABARRENA

En la actualidad, la red de bidegorris de Debabarrena se encuentra en una situación muy inicial, en la que se han realizado solo algunos tramos interurbanos como Soraluze-Bergara y Elgoibar-Maltzaga. En el caso de los tramos urbanos, aún no se ha ejecutado ninguno de ellos.

La propuesta impulsada por los Ayuntamientos de Debabarrena pretende ser el punto de partida para definir un trazado, sección y ordenación de los bidegorris en los municipios de la comarca, quienes serán en última instancia quienes decidan el trazado y la forma de incorporar los mismos a su dinámica municipal.



Tramo del bidegorri en Elgoibar



# DEBEGESA firma un convenio con IHOBE para el desarrollo del Programa de Ecoeficiencia en Debabarrena

La agencia comarcal DEBEGESA colaborará durante el año 2011 con la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, dependiente del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, con el fin de impulsar la implantación del Programa Acción Ecoeficiente en las empresas de Debabarrena. Este Programa recoge un conjunto de actuaciones dirigidas a las empresas de la comarca.

*Se impartirán 7 jornadas ambientales en el marco de la iniciativa "Los viernes en DEBEGESA"*

El proyecto también prevé la creación de dos grupos de trabajo formados por empresas de la comarca para la mejora medio ambiental de sus actividades. Asimismo, se contempla la implantación del programa Acción Ecoeficiente en diez empresas de la comarca, con el

fin de identificar las oportunidades fundamentalmente de ahorro de consumo de materias primas y emisiones de CO<sub>2</sub>. En definitiva, se trata de que las empresas de la comarca interioricen la mejora ambiental como medio para acrecentar su rentabilidad. Para ello, estas diez empresas contarán con una financiación del 50% del coste de consultoría.

Por último, el proyecto ofrece a las empresas de Debabarrena la posibilidad de adherirse al Programa de Acción Ecoeficiente, en el cual se incluirán empresas que llevan años trabajando en la protección del medio ambiente y aquellas que implanten durante este año dicho programa. La principal ventaja que obtendrán como fruto de la adhesión será el tener acceso a determinados servicios de forma gratuita.



## Euskadi Turismo Saria 2010 Flyscharen Ibilbidearentzat

Deba, Mutriku eta Zumaia bultzaturiko Flyscharen Ibilbideak Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Turismo Saria jaso du. Sari-banaketa iragan azaroan egin zen Gasteizen eta ekitaldiak Patxi Lopez Lehendakaria izan zuen buru.

Hiru udalerrietako alkateek eta proiektuko lan-talde osoak Ilusioz jaso dute saria. Haiek adierazi bezala, produktu turistikoa honen arrakastaren giltzarria elkarlanean eta talde-lanean dago. Batetik, hiru udalen eta bertako Turismo Bulegoen arteko elkarlanean, bakoitzaren interes eta protagonismo partikularrak gaituz, elkarrekin aurrerapausoak emateko erabakia hartu baitzen. Bestetik, enpresa pribatuarekin osatutako lankidetzaren ere funtsezkoa izan da proiektua aurrera eramateko.

Azpimarratzekoa da, era berean, DEBEGESA Deba, Mutriku eta Zumaiaiko udalei eskaini dien laguntza. Proiektuaren garapena ahalbidetu duten baliabideen bilaketan eta koordinazio lanetan ez ezik, DEBEGESA Agentziak lan gogorra burutu du azken urteetan lurralde honek Europar Geoparkean Sarera eta Sare Globalera sarbidea izan zezan, duela gutxi lortu dena, alegia.

Urte urte Flyscharen Ibilbidea indartuz eta sendotuz joan da produktu turistikoa gisa. Egun, publiko ezberdinari zuzendutako eskaintza zabala dute, Lurraren historia geologikoan milioika urteetan barrena ibilbide ederrak egiteko aukera paregabea eskainiz. Berritasun modura, azken urtean itsasontzi irteerak, trekkingak, kayak irteerak, geotour-ak... egiteko txartelak webgunean bertan eros daitezke: [www.flysch.com](http://www.flysch.com).

## 21 empresas de Debabarrena reciben el diploma de Calidad Turística

21 empresas de Debabarrena que trabajan en el Programa de Buenas Prácticas recibieron el diploma de Calidad Turística en un acto presidido por la Directora de Turismo del Gobierno Vasco Isabel Muela, junto con la presidenta de DEBEGESA Irune Berasaluze y los alcaldes de Deba y Mutriku, Jesus Mari Agirrezabala y Josebe Astigarraga, respectivamente.



*El objetivo del programa es mejorar la organización interna, la gestión y el conocimiento del cliente.*

El programa tiene una duración de cuatro años y su responsable es el Gobierno Vasco, a través de Euskalit. Por su parte, la Agencia de Desarrollo DEBEGESA es la encargada de la gestión y de tener contacto directo y asesorar a las empresas participantes.

Mireia Álvarez, del hotel Krabelin, y Maitane Beristain, del albergue de Lastur, compartieron con todas las personas asistentes al acto su experiencia en el Programa de Buenas Prácticas. Las dos coincidieron en calificar dicha experiencia de muy positiva y dieron las gracias a las personas responsables de DEBEGESA por el apoyo que les han brindado.

## DEBABARRENEKO II. BTT MARTXA ARRAKASTATSUA

Eguraldia lagun izan ez bazen ere, 350 lagun baino gehiagok parte hartu zuten Debabarreneko II. BTT Martxan. Ibilaldi honek bi helburu nagusi ditu, batetik, Debabarreneko BTT Zentroa bultzatzea, eta bestetik, eskualdean dauden ibilbideak ezagutzera ematea. Ibilaldia Karakate inguruan egin zen pasa den urrian.

## BEHIN ETA BERRIZ ERABILTZeko POLTSAK

Debako Udalak eta Debalai Merkatarik Elkarrekin behin eta berriz erabiltzeko telazko poltsak banatuko dituzte 2011ko lehen hiruhilabetekoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Plastikozko poltsen kontsumoa jaiste eta herriko merkataritza bultzatzea dira kanpaina honen helburuak.

## KONTSUMO IRAUNKORAREN ETA ARDURATSUAREN I. FERIA

Besteak beste, herriko ikastetxeek bigarren eskuko merkatua antolatu zuten, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izan zen eta Emaus-ek bigarren eskuko arropak jarri zituen salgai. Bestalde, Udalak laster abian jarriko duen proiektuan erabiliko diren kotxe elektrikoak ikusgai egon ziren.

## DEBABARRENA FITUR AZOKAN

Urtero legez, eskualdeko eskaintza turistikoa Madrilgo Fitur azokan izan da, nazioarte mailako turismo azokarik garrantzitsuenetan. Bisitariak Debabarreneko produktu turistikoa, museoak, ostatuak... gerturatzeko ezinbesteko hitzordua izan ohi da Fitur.

## EIBARKO UDALAK ZARATAREN MAPA ONARTU DU

Eibarko Udalak zarataren mapa onartu berri du. Ekimen honen baitan, kale eta errepideetako trafikoak eta trenak sortutako zarata neurtu dute, biztanleengan osasun arazoak sortzen dituzten ekidin eta, zentzu horretan, herriak dituen arazoak gutxitu asmoz.

## AUDITORIA ENERGETIKOAK EIBARKO UDALEAN ETA PORTALEAN

Ikerketak kontsumo energetikoari dagozkion hainbat eremu aztertu ditu (instalazio elektrikoak, berogailu sistema, argiztapena, uraren erabilera...), baita erabiltzaileen kontzientziazio maila edota instalazioen erabilera zentzuduna ere. Helburua eraginkortasunaren eta energia-berriztagarrien aldeko jardura-plana ezartzea da.

# EIBAR, MEMORIA DE LA REPÚBLICA

Desde el año 2010, el Ayuntamiento de Eibar y DEBEGESA trabajan en la definición de un proyecto Memorial para la ciudad de Eibar. El objetivo principal de este proyecto es la planificación de una oferta educativa, de ocio cultural y de turismo memorial, centrada temporalmente entre los años 1931 y 1945, que abarcan temáticamente la proclamación de la II. República y sus avatares, la Guerra civil y los primeros años de posguerra y reconstrucción en Eibar.

Así, se llevarán a cabo intervenciones en la ciudad, tanto en el casco urbano como en el

entorno rural de Arrate, Akondia, Kalamua, Usartza, Ixua... Los principales "espacios de la memoria" donde está previsto actuar son equipamientos existentes en la ciudad que han sido elegidos por su simbolismo o localización: Portalea, la Casa Consistorial, la Colonia de Arrate y Txantxa-Zelai. Para mostrar al público los contenidos, se utilizarán diferentes recursos y soportes: expositores y paneles, audiovisual, señalización, etc.

Este año 2011 está previsto trabajar en la concreción del proyecto, iniciando trabajos de investigación histórica y buscando res-



paldos tanto de las instituciones como de agentes sociales próximos al proyecto. Si todo va según lo previsto, el año 2012, Año Internacional de las Culturas, la Libertad, y de la Paz, comenzarán a mostrarse los primeros trabajos.

# INGURUGIRO ARLOAN BAILARAKO HAINBAT UDALERRIREN LANA AITORTU DU UDALSAREA 21 ERAKUNDEAK

UDALSAREA 21 - Iraunkortasunerako Udallerrien Euskal Sareak ingurumen arloko sariak banatu berri ditu eta Elgoibar, Ermua, Soraluze eta Mallabiko Udalek sustaturiko proiektuak aintzat hartu dituzte.

Ekoberrikuntza atalean, Mallabiko Goitondo Proiektuak eskuratu du saria. Egitasmoa Mallabiko Udalak eta DEBEGESA bultzatu dute, Mondragon Unibertsitatearen eta EHUren laguntzarekin. Sistema naturalen antolamenduak agintzen dituen printzipioak Goitondo industrialdean ezartzea da proiektuaren ardatza.

Biodibertsitate atalean, Soraluzeko Udalak garatutako "Baso Bidez" proiektua finalisten artean geratu da. Helburua Soraluzeko

baso autoktonoen desagertzea geldiaraztea eta horiek berreskuratzea da.

Heziketa jasagarriaren atalean, berriz, Elgoibarko "Oin alai" eta Ermuko "Oinez eskolara, klimaren alde" izan dira finalista. Bi proiektuek eskola-umeen artean oinezko mugikortasuna sustatzea dute helburu nagusi.

Bestalde, Elgoibarko Udalak, Ingurumen Ministerioak parte hartzen duen Conama fundazioaren eskutik, 5.000 eta 30.000 biztanle bitarteko udallerrien kategorian, lehenengo accesita jaso du, "Elgoibar Berdea" proiektuarengatik.